

7. unitateko erantzunak: Eskutitza
Helburua: lagunari postala idaztea oportretatik. NOREN deklinabidea lantzea.

Erantzunak eta transkripzioak

Laguanaren eskutitza

- Eskutitzak ez du remiterik. **EGIA**
- Eskutitza Amaliarena da. **EGIA**
- Amalia Italian dago, lanera joan delako. **GEZURRA**
- Amaliaren lagun guztiak Euskal Herrikoak dira. **GEZURRA**
- Kapela beltza Leorena da. **EGIA**
- Tizianoren eskulturak kalean daude. **GEZURRA**
- Gondolan ibili eta hamarretan afaldu dute. **GEZURRA**

Deklinatu hitzak

IsabelEN etxea oso polita da.
GuRE lagunAREN/ lagunEN etxea oso polita da.
Etxe hori gure lagunARENA/ lagunENA da.
Norena da gitarra? BernardoRENA.
BernardoREN gitarra oso ona da.
MikelEN eta TomasEN semea oso bihurria da.
Neska HORREN gurasoak Asiakoak dira.
NiRE herria oso txikia da.
PicassoREN koadroak oso ospetsuak da.
Koadro horiek Leonardo da VinciRENAK dira.
IkasleAREN/ ikasleEN postala jaso dute irakasleek.
Non daude guRE betaurrekoak?
Coldplayren azken diskoa oso ondo dago.
"Hornet flight" Ken FolletENA da.
Bernardo AtxagaREN "Obabakoak" oso ezaguna da.
Nire txirrinduan joango naiz Santiagora.

ET gure laguna

- Estralurtar hau oso famatua da. **EGIA**
- ET gure etxean sartu da. **EGIA**
- ET ez da idazlearen gustukoa. Idazleari ez zaio ET gustatzen. **GEZURRA**
- ETek hatz berezia du. **EGIA**
- Hasieran, ET helduen lagun egin zen. **GEZURRA**
- Idazlearen ustez, ET gure laguna da. **EGIA**

| | | | |
|------------------|------------------|-------------|--------|
| Mi guitarra. | Nire gitarra | La mía. | Nirea |
| Nuestro amigo. | Gure laguna | El nuestro. | Gurea |
| Tu coche. | Zure autoa | El tuyo. | Zurea |
| Su libro. | Haren liburua | El suyo. | Harena |
| Mi pequeño pony. | Nire poni txikia | El mío. | Nirea |

7. unitateko erantzunak: Eskutitza

Helburua: lagunari postala idaztea oportretatik. NOREN deklinabidea lantzea.

| | | | |
|----------------------|--------------------|--------------|-----------|
| Vuestra hermana. | Zuen arreba/ahizpa | La vuestra. | Zuena |
| La hermana de Patxi. | Patxiren arreba | La de Patxi. | Patxirena |
| Mi generación. | Nire belaunaldia | La mía. | Nirea |
| Su profesor. | Haren irakaslea | El suyo. | Harena |
| Mis gafas. | Nire betaurrekoak | Las mías. | Nireak |
| Tus alumnos. | Zure ikasleak | Los tuyos. | Zureak |

La amiga de Pello es muy maja.

Pelloren laguna oso jatorra da.

El perro de mi amigo se ha caído.

Nire lagunaren txakurra erori da.

Han pintado nuestra casa.

Gure etxea margotu dute.

El libro de Atxaga es muy nuevo.

Atxagaren liburua oso ona da.

Hemos visto la película de Montxo Armendariz.

Montxo Armendarizen filma ikusi dugu.

Me he comprado el disco de Benito Lertxundi.

Benito Lertxundiren diskoa erosi dut.

Mi teléfono está roto.

Nire telefonoa puskatuta dago.

El mío no tienen cobertura.

Nireak ez du koberturarik.

Entzumena: Bihar Gasteiza

- Ana oso ondo dago Euskal Herrian. **EGIA**
- Anari sagardoa asko gustatzen zaio. **GEZURRA**
- Sagardoaren zaporea gozoa da. **GEZURRA**
- Haizeen Orrazia Chillidarena da. **EGIA**
- *Los pilares de la tierra* ez da Ken Folletena. **GEZURRA**
- Zeledonen estatua Ama Zuriaren plazan dago. **GEZURRA**

Transkripzioa:

Kaixo, Amalia:

Zer moduz zabilta?

Ni Euskal Herrian, primeran! Aste honetan leku asko bisitatu ditut, eta asko gustatu zaizkit. Bilbo, Iruñea eta Donostia ezagutu ditut. Sagardotegiak ere

7. unitateko erantzunak: Eskutitza

Helburua: lagunari postala idaztea oportretatik. NOREN deklinabidea lantzea.

ezagutu ditut. Niri sagardoa ez zait asko gustatzen, baina giro bikaina dago. Sagardoaren zaporea mikatza da. Bertsoak bai, bertsoak asko gustatzen zaizkit.

Chillida-leku ere ikusi dugu. Chillidaren obra oso interesgarria da, eskultura handiak eta margoak ditu. Donostiako "Haizeen orrazia" ere Chillidarena da.

Hemen lagun bat egin dut: Michael. Alemaniakoa da eta, niri bezala, Euskal Herria asko gustatzen zaio. Bihar Gasteiza joango gara. Han Santa Maria katedrala ikusiko dugu. Oso polita da. Gero, Ken Folleten eskultura ikusiko dugu, Michaeli Ken Folleten liburuak asko gustatzen zaizkiolako. Ezagutzen duzu *Los pilares de la tierra* liburuak? Bai, Ken Folletena. Ba, dirudienez, Gasteizko Santa Maria Katedralean inspiratua dago.

Jakina, Zeledonon estatua ere ikusiko dugu. Handik hurbil dago Ama zuriaren plaza, eta hara ere joango gara. Plaza horretan jaisten da urtero Zeledon jaien hasieran.

Irakurmena: Londresera oportretara

St. Paul Cathedral

1676 y 1710 urteetan eraiki zuten 1666an erre zen erdi aroko katedral baten gainean. Hau da Ludgate Hilleko katedral anglikanoa.

Trafic light three

Eskultura honek Londreseko giroa erakusten du, argiak asko mugitzen dira, Londresen aktibitate handia dagoela adierazteko.

Big ben

Hau ez da bere izena, baina horrela ezagutzen dute askok. Munduan dagoen lau aurpegiko erloju handiena da. Waterloo eta Westminster metro-geltokietatik hurbil dago.

Hyde park

Londres erdialdeko parkerik handienetako bat da, oso ezaguna da Speaker Cornerrera jendea hitz egitera, hitzaldiak ematera joaten delako.

British museum

Londres eta Erresuma Batuko museorik handiena, munduan ospetsuenetarikoa ere bai. Bost milioi bisitari izan ditu eta kontinente guztietako zazpi milioi baino objektu gehiago ditu.

The city

Londresko bulego dorre handienak daude hemen. Londresko etxe-orratz altuena ere hor dago: Westminster Tower. Lloyd's of London ere hor dago.

London eye

Milenioko noria ere deitzen zaio. 2000 urtean ireki zen eta 135 metro ditu.

Milenium zubia

Thames ibaia zeharkatzen du, Bankside eta City lotzeko.

7. unitateko erantzunak: Eskutitza

Helburua: lagunari postala idaztea oportretatik. NOREN deklinabidea lantzea.

| Zer | Nork diseinatu zuen? | Norena da? |
|--------------------|---|---|
| Lloyd's of London | Richard Rogers EK | Richard Rogers ENA |
| Britihs museum | Norman Fosterr EK | Norman Fosterr ENA |
| Milenium zubia | Norman Fosterr EK | Norman Fosterr ENA |
| Big Ben | Charles Barry K | Charles Barry RENA |
| London eye | David Marks EK eta Julia Barfield EK | David Marks ENA eta Julia Barfield ENA |
| Trafic light Three | Pierre Vivant EK | Pierre Vivant ENA |
| St. Paul cathedral | Christopher Wren EK | Christopher Wren ENA |
| Hyde park | Charles Bridgeman EK | Charles Bridgeman ENA |

Irakurmena: Postalak

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| e | d | a | b | c |

Hiztegia

| | |
|-----------|------------------|
| Alokatu | Alquilar |
| Zoragarri | Maravilloso |
| Hegazkin | Avión |
| Primeran | Muy bien |
| Barnetegi | Internado |
| Bezero | Cliente |
| Atzeratu | Posponer |
| Batzarra | Reunión |
| Tarteka | De vez en cuando |
| Argazki | Foto |

Testua osatu: Gure artistak

Ramon naiz, musikari trebea. Berandu jaikitzea gustatzen zait. Motorrean ibiltzea gustatzen **ZAIT**, abiadura asko gustatzen zait. Gaur istripua izan dut, gorpila zulatu **ZAIDALAKO**, baina ez da larria izan. Garagardoa **ERE** gustatzen zait, eta futbola!. Gure ekipoa Osasuna da. Gora rocka eta futbola!

Oso idealista da, ekologista ere bai. Hirian bizi da baina baserria gustatzen **ZAIO**. Ez du autorik, ez du behar gainera. Bizikleta da bere ibilgailua, bizikletan ibiltzea naturala eta oso ekologista **DELAKO**. Argazkilaria da, "Natura" aldizkarian lan egiten du. Gaur, *Lagun* zakurrarekin joan da lanera. *Lagun* oso zakur zintzoa da. Neska honek Marian du izena, oso emakume lasaia da, eta bi zaletasun ditu: Mendia eta liburuak. Hori bai, **ERRETZEA** gustatzen zaio.

Emakume hau Nekane da. 25 urte ditu. Nekane ez da punkya, ez da heavya. Nekane **GURASOEN** etxean bizi da, eta ez zaio dirurik falta. Margolaria da, baina ez du **LANIK**. Komikiak gustatzen **ZAIZKIO**.

7. unitateko erantzunak: Eskutitza

Helburua: lagunari postala idaztea oportetarik. NOREN deklinabidea lantzea.

Mafaldaren bertsio berri bat egin nahi du eta konputagailuan jo eta ke lan egin du goiz osoan, baina gimnasioa ere gustatzen **ZAIO**. Gaur bi pesak buru gainean erori zaizkio. Hori kolpea!

Norena da? Norenak dira?

Argazki makinak Marianenak dira.
Txakurra Marianena da.
Liburuak Marianenak dira.
Musika tresnak Ramonenak dira.
Whiskia Ramonena da.
Mafaldaren komikia Nekanerena da.
Motorra Ramonena da.
Giharrak Nekanerenak dira.
Txirrindua Marianena da.
Eskorgak Marianenak dira.
Konputagailuak Nekanerenak dira.
Baloia Ramonena da.

Entzumena: Norena da?

- 1- Mirenena
- 2- Dream Theaterrena
- 3- Nogenena, Nogen taldearena.
- 4- Nire ahizparena. Nagorerena.

Transkripzioa

1. elkarrizketa

- Kaixo, Koldo!
- Kaixo, Miren, zer moduz?
- Ondo, oso ondo. Eta disko hori?
- Disko hau, hau nirea da. Gaur erosi dut.
- Gaur erosi duzula, disko hori nirea da, lotsagabea. Ekarri hona.

2. elkarrizketa

Gaur irten da merkatura Dream Theater taldearen azken diskoa. Talde amerikarrak hogeita hamar urte bete ditu aurtan. Lehenengo diskoa 1989. Urtekoa da. *Distance over time* du izena lan berriak. Hauxe da amerikarren lehen singela:

7. unitateko erantzunak: Eskutitza
Helburua: lagunari postala idaztea oportetatik. NOREN deklinabidea lantzea.

3. elkarrizketa

- Norena da disko hau?
- Hau? Hau Benito Lertxundirena da.
- Benito Lertxundirena? Benito Lertxundi Indie estiloan?. Ez da posible. Disko hau ez da Benitorena.
- Arrazoi duzu, disko hau ez da Benitorena, Nogen taldearena da.
- Nogen? Nortzuk dira horiek?
- Talde indie bat. Donostiakoak dira.

4. elkarrizketa

Ni Nekane naiz eta disko hau ez da nirea, ez da Amaiaarena, ez da Jesusena. Nire ahizparena da. Nire aitak Joseba du izena eta amak Margari. Anaiak Luis eta Margariren beste alabak: Nagore. Norena da diskoa?

Material osagarria

Badakizu: Euskal inauteriak

| | |
|----------|--|
| 7 | Zakuzaharrak Lesakako inauterietan izaten dira. Zakuzko jantziak eramaten dituzte eta jantzien azpian lastoa. Aurpegia zapi zuri batez tapatzen dute. Gauean egiten dute festa eta herriko haurrek zakuzaharren gainean salto egiten dute. Askotan lurrera botatzen dituzte eta jantziak hautsi. |
| 5 | Atorrak Mundakako pertsonaia nagusia. Inauterietako igandean zuriz jantzita ateratzen dira kalera. Buruan zapi zuria jantzen dute. Musika jotzen dute, herrian ibiltzen dira eta, gero, portuan abesten dute. |
| 9 | Markitos Zalduondokoa da Markitos. Zalduondo Araban dago. Jantzi beltza du eta asto gainean etortzen da. Markitos panpina da eta sei metroko makila batean jartzen dute. Arratsaldean erre egiten dute. |
| 8 | Mamoxarroak Unanuako eta Altsasuko inauterietako pertsonaiak. Igandean Mamoxarro txikien eguna egiten dute eta 15/17 urteko gazteak ateratzen dira. Oso moztu bitxia da, burdinazko karatula bat eramaten dutelako aurpegian. Herrian ibiltzen dira eta dirua eskatzen dute. Gauean afaria egiten dute. Makilak edukitzen dituzte. Trajea zuria da eta buruan zapi gorria eramaten dute. |

7. unitateko erantzunak: Eskutitza

Helburua: lagunari postala idaztea oporretatik. NOREN deklinabidea lantzea.

| | |
|-----------|--|
| 2 | Joaldunak Zubietan eta Iturenen egiten dute festa hau. Zintzarri handiak jartzen dituzte gerrian eta, astelehenean, Zubietako joaldunak Iturenera joaten dira. Asteartean Iturengoak Zubietara. Bizkarrean ardi-larrua eramaten dute. |
| 1 | Zamaltzain Zuberoako pertsonaia. Zuberoan maskarada beltza eta gorria dago. Gorriak dotore janzten dira. Zamaltzaina gorria da, pertsonaia ona, zaldia ematen du. Beltzak ez dira dotoreak. Antzerkia egiten dute eta godalet dantza ere bai- Baso ardoaren gainean egiten dute dantza. |
| 3 | Hartza Leku askotan protagonista hartza da. Asteartean ateratzen da eta herrian gora eta behera ibiltzen da. Zaindariak lotu egiten du baina hartzak ihes egiten du. Mutilek sagar-dantza egiten dute. |
| 10 | Erraldoitxoak Erraldoiak bi izaten dira. Panpinak dira eta bi emakume argal eta luze errepresentatzen dituzte. Soineko zuria eta jaka gorria izaten dute. Nafarroa Beherean dute ohitura hau. |
| 4 | Miel Otxin Lantzeko inauteriko pertsonaia nagusiak Miel Otxin, ziripot eta perratzaileak dira. Astelehenean hasten da festa. Asteartean Miel Otxin plazara eramaten dute epaitzeko. Gero, tiroz hil eta erre egiten dute. Ondoren, suaren gainean zortzikoa dantzatzen dute. Lantziko inauterik oso famatuak dira. |
| 6 | Kotilungorriak Lau egunetan ospatzen dira inauterik Ustaritzen. Herrian ibiltzen dira eta dirua eskatzen dute. Umeak beldurtzen dituzte. Gona gorria izaten dute eta ator zuria. Kapela luzea ere eramaten dute. |